

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Elkarteeak, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2025ean egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntz en deialdia jasotzen duen 2025eko otsailaren 17ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 817863.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/817863>.

Deialdiaren xedea

2025. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerriarentzat onuragarritzat jotzen direnak eta Udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

Diruz lagundu daitezkeen arloak

1. Gizarte eta kultura sustapena.

Kultura eta gizarte jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi tailerrak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura edo gizarte jardura edo ekintza ere).

2. Kirol sustapena.

Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako gainerako jardura guztiak).

Diruz lagundu ezin diren jarduerak:

Herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen duten berrazko jarduerak.

Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jardueretako anoetarako eta behar bezala justifikatuta badaude.

Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrek erostea, salbu eta diruz lagundutako jardura egiteko behar-beharrezkoa den materiala, aldezturik haren beharrendaren balorazio teknikoa eginda.

Funtzionamendu gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erregaia...).

Onuradunak

1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta baldintza hauek betetzen dituztenak:

Egoitza udalerrian duten kirol elkarteak eta klubak, programak eta jarduerak udalerrian soilik egiten dituztenak.

Udalerrian kokatuta ez egon arren, udalak ezarritako edo mugakide den jarduera eremu batean gauzatzen diren gizarte, kultura edo kirol programak egiten dituzten kirol elkarte eta klubak, gutxienez tokiko hiru bazkide edo gehiago badituzte.

2. Donemiliagako udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, baldin eta dirulaguntzaren ematea justifikatzen duten jarduerak egiten badituzte.

3. Nortasun juridikorik izan ez arren, udalerrian kide kopuru handia erroldatuta duten pertsona fisikoen taldeak, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak edo jarduerak egin ditzaketenak, hain zuzen ere, udalaren jardunaosatzen duten eta udalerrirako herri eta gizarte interesekotzat jotzen diren proiektuak eta jarduerak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udaltzazak 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak honako aurrekontu partida hauen kargura emango dira: 231.481.000 partidatik (Erretiratuen elkarteak) 2.672,25 euro; 334.482.000 partidatik (Kulturako dirulaguntzak) 1.710,00 euro; 341.482.002 partidatik (Kirol jardueretarako dirulaguntzak) 4.810,00 euro.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko uztailaren 28an bukatuko da.

Erdoña, 2025eko martxoaren 3a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO